

Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

2001eko apirilaren 6a VI.urtea

Usurbil, 110. zenbakia



**Baionara bidean
Usurbildik barrena**

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8

**GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8**

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUA.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK.
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN.

**SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.**

**MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPRIMISURIK GABE**

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua



Orain bazkide egiten bazara bazkideen onura guztiak jaso ditzakezu:

- ✗ Kuadernatzeko falta zaizkizun zenbakiak eta tapak doan
- ✗ %10eko beherapanak: Aldatz kioldenda, Mahuka jantxidenda, Pauma Haur jantziak, Truke jantxidenda, Usurbil optika denda, Intza ileapaindegia
- ✗ 2.500 pezetatik gorako otordua eginez gero %10eko deskontua Patri, Zumeta eta Antxeta Jate-txeetan.

**Egin zaitez
Noaua!ko bazkide!**



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak
Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia
Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak
Ehundaka altzairu %50ean
Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan




Apirilaren 11n zure urtebetetze eguna izango denez urteaskoan **Eneko**, zorionak eta eguna ondo pasa. Muxu haundi bat etxekoan partez.



Zorionak **Xabier**! Dagoeneko 8 urte bete dituzu; zer azkar pasatzen den denbora! Ondo pasako zenuela-koan muxu haundi bat gutxion partez. Aita, ama eta Ane.



Zorionak **Oihan**! Apirilaren 12an 6 urte beteko dituzu. Muxu haundiak eta zorionak denon partetik etxeko kirolariari!



Zorionak **Enara** eta **Ander**! Familiako bi txikiak urte bat eta 3 urte beteko baitituzte apirilaren 9an eta 20an. Zorionak zuri ere **aitona Inaxio**, hil honen 11n 60 urte beteko dituzu eta! Muxu haundi bana etxekoan partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnak nahiz ez direnak tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: apirilaren 6an
Ekartzeko azken eguna: martxoaren 31a

Hildakoak



2001-04-01
Angel Manzisidor Goikoetxea
55 urte
Aginaga



2001-04-02
Antonio Iurrettagoyena Echave
69 urte
Zubieta



2001-04-02
Inaxio Pellejero Ezama
71 urte
Kalezar

Apirila

Astel. Astear. Asteaz. Osteg. Ostira. Larun. Igand.

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.17	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.17	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40*	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40*	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Orioraino **Aiaraino
■ Asteburutan

*Oriotik **Aiatik

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzaintza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 37 32 28
- Gure Pakea 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaual aldizkaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.jalgi.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustín Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Martin Alustiza Korrika 12ren lekukoarekin Gaztañagako errotondan

Ez dago honetarako eskubiderik!

Ez zaio erraza gertatzen ari Euskal Herriari bere buruaren jabe izateko ahalegina. Ez da oraingoxea kontu hau. XVIII. mendetik aurrera Espainiako eta Frantziako estatu zentralisten erasoek asko murriztu zituzten askatasunak, usadio zaharrak, burujabetza administratiboa eta euskararen erabilera. 1790an Frantziako estatuak euskal herrialdeei nortasuna eta departamendu izatea ukatu zien eta 1876an Hego Euskal herriko Foruak erabat deuseztatuak geratu ziren, 1936ko gerra zibilak lurjota utzi zuen Hego Euskal Herria. Bizkaia eta Gipuzkoa zigortu egin zituen, traidoretzat hartuta, eta kontzertu ekonomikoa kendu zien, bozkaz eratutako boterearen aurka matxinatu zen Franco jeneralak. Euskara debekatu eta euskal kultura arras ezabatu zuen. Giroa hain txarra izanik ere, diktadurako urte ilun eta luzeetan ikastolak eta kultur pizkundea indarrean jartzeko gai izan zen gure herri hau. Diktadorea desagertzearekin, erakunde berriek ekarritako giroan, neke handiz bada ere, inoiz haizea erabat aldekoa izan gabe ere, aurrera eginen jarraitu du.


Azken aldi honetan, ordea, gertakizun mingarrien aitzakian, herrigintza bultzatzea beste bekaturik ez duten hainbat lagun, elkarte, argitaletxe, ikastola, etab. neurririk gabeko irainak, hemendik kanpo irudi

txarra sortzea beste asmorik ez duten miaketak, Zabaltzenen eta AEKren kasuak eta eguneroko tertuliano maltzurren informazio-nahasketak nozitzen ari dira. Honen lekuko dugu *Noaua!* Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide dugun Olatz Altunaren atxiloketa. Langileak trebatzeko Hobetuz programarako diruak ere ez dizkigute opa. Zer esan berriz Nafarroako erasoez? Errepide-etako seinaleetan ere ez dute utzi nahi izan euskararen arrastorik.

Hau dena ikusita zer egin dezake *Noaua!*-k? Gaur behintzat herritarroei egoera honen larritasuna nabarmendu nahi genizueke eta gure indar ahulaz bada ere, oihu egin Usurbilgo udallerriaren mugetaraino gutxienez hel dadin, ez dagoela honetarako eskubiderik.

Kultur Elkartea eta aldizkaria gara; guri ez dagokigu aurrean esan ditugunekin funtsean ados dauden alderdi politiko-en arteko desberdintasunen artean aukerak egitea, bai aldiz berdintasunak azpimarratzea. Elkartearen eginkizunetan jarriko dugu gure indar guztia. Horixe uste dugu dela goian salatu nahi izan dugun egoera gaizto hori gainditzeko egin dezakegun ekarpenik onena.

Noaua! Kultur Elkarteko Batzar Orokorra





Garbiñe Zaldúa Iturrioz

Zubietako Herri Batzarreko kide da eta gaur egun Andoainen bizi bada ere, ez du Zubietara bueltatzeko ideia baztertzen.



Zubietako Herri Batzarreko kide zara. Zein da zure lana bertan?

Ni diruzaina naiz. Ordainketak eramaten ditut, dirulaguntzak ea iritsi diren begiratzen dut... Gertatzen dena da gauza asko denen artean egiten ditugula askotan, orduan nahiz eta bakoitzak bere funtzio konkretua izan, denok denetik egiten dugu.

Bestela ingurugiro hezitzailea zara, ezta?

Bai, bost urtez egon nintzen ingurugiro hezitzaile bezala lan egiten eta azken urte honetan institutoko irakasle bezala nabil Burlatan. Egunero joan eta etorri egiten dut, aukera nuen han geratzeko, baina bizimodua hemen egin daukat eta autobiaz ordu bete besterik ez dut egiten, beraz...

Zerk bultzatu zintuen Herri Batzarrean parte hartzea?

Herri Batzarra orain dela lau urte sortu zen eta bi urtetan talde berdina egon zen. Orain dela bi urte berriro hauteskundeak izan ziren eta lehen ibili zen jende batek atera egin nahi zuenez, pertsona ezberdinei deika hasi ziren, niri esan zidaten eta animatu egin nintzen.

Lan haundia al da?

Ez. Bi astetik behin elkartzeko gara eta ez da lan haundia. Beno, nik ez dut lan askorik egiten, baina badago lan asko egiten duen jendea. Dena den, beti da buruhaustea, beti egin behar dituzu gauzak eta askotan ezin dira gauzak aurrera eraman. Baina orain dela bi urte

hasi ginen eta niretzat esperientzia positiboa izaten ari da. Asko ikasten ari naiz.

Hurrengo hauteskundeetan asmorik ba al duzu zure burua hautagai bezala aurkezteko?

Hemendik bi urtera izango dira hauteskundeak, eta pentsatuko dut. Gauza asko gertatu daitezke bi urtetan eta egia esan ez dakit zer egingo dudan hemendik bi urtera..

Zubietarra zara, Zubietako Herri Batzarreko kide zara eta Andoainera joan zinen bizitzera. Zer dela eta?

Duela bi urte aukera izan nuen hara joateko eta joan egin nintzen. Orain Zubietako etxeak bukatu zain nago.

Zubietara bueltatzeko asmoa duzu orduan?

Bai, aukera izanez gero behintzat bai. Han gus-tora nago, baina Zubieta da nire herria.

Etxebizitza berriak egin behar dituzte gainera.

Bai. Orain dela gutxi komunikabideen bitartez jakin genuen Eusko Jaurlaritzak Hipodromoaren atzeko aldean lurak erosi zituela. Gaur egun ez dira urbanizagarriak, baina Donostiako udalari eskaera egin behar omen diote urbanizagarri egin ahal izateko. Bi mila etxebizitza inguru egiteko asmoa dute.

Zuek horren berri ez zenuten ezta?

Ez. Askotan kanpotik jakiten ditugu horrelako gauzak. Gure asmoa gauzak jakiten lehenak izatea da, baina ez dugu beti horretarako aukerarik izaten.

ERRAZKIN

Igeltseritza orokorra

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santueña Mob: 629 42 05 65

WITZAGIN

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskarako prezioak etxera!



Pinturas lon



943 83 09 37 ☎ 670 397504

TXOKOALDE

Olatz Goenaga



Komeriak auzoko bidegurutzean

Txokoaldera datozen kotxe, kamioi eta furgonetak, besteak beste, N-634 bidetik ibiltzen dira normalean. Horretarako, gasolinerako bidegurutzearekin aurkitzen dira. Txokoaldekoak garenok sarrera edo irteera hori ondo ezagutzen dugu, eta dituen arriskuen berri ere badakigu. Baina, lehenengo aldiz etortzen diren ibilgailuentzat lan nekeza izaten da Txokoalderako bidea aurkitzea eta galduta ibiltzen dira.

Usurbildik Txokoaldera etortzen direnek, gasolineran buelta eman gabe zuzenean gure auzora sar daitekeela uste dute, eta hor geratzen dira, bide erdian, intermitenteari

eman eta Orio aldetik libre dagoenean Txokoaldera sartzeko asmoz, honek dakarren arriskuaz konturatu ere egin gabe.

Baina bidegurutze honetan arriskutsuena irteera da. Ibilgailua asko, gehiegi, gerturatu behar izaten da bide ertzeraino; bi norabideetan, Orio zein Usurbildik, kotxeren bat badatorren ikusteko.

Hala eta guztiz ere, zailena Usurbildik datozenak ikustea izaten da, bide zatia txikiagoa delako eta kotxe barrungo ikuspuntua txarragoa delako norabide honetan. Batez ere kamioiak ibiltzen dira komeria gehienekin, oso zaila edo ezi-

nezkoa baitzaie Usurbildik datozen ibilgailuak ikustea, eta kamioiaren muturra bide erdira atera behar izaten dute kotxeak ondo ikusi ahal izateko. Honek guztiak, esan beharrik ere ez dago, arrisku haundia dakar.

Agian irteera honetako arazoaren konponketa isplu bat jartzea izango litzateke, gasolindegiko lorategiaren izkinean edo.

Bestalde, estazio bidean azkenaldian kartoi eta paper zabor asko ageri da. Badirudi kontenedoreetan sartu ez edo jasotzen ez dituzten kartoiak direla eta haizeak bidean zehar zabaldutak direla.

KALEBERRI

Ines Kamino



Mugimendua nagusi kaxkoan

Gurea ez da herri haundia, izaten dugu, ordea, haundienean adinako mugimendu. Batzuetan desoreka antzekoa ere izaten da, edo ezer ez edo gehiegi.

Nik, eta baita gainontzeko kronistek ere, ederki dakigu hau. Askotan zati txuri hau ezin bete ibiltzen gara eta, bestetan, berriz, zer kontatua soberran. Adibidez, oraingoan "konpleto-konpleto" nator, aurreko eta ondorengo kontuak aipatuko baititut.

Aurreko astelehenean Korrika Usurbildik pasa zen, goizeko zazpiak laurden gutxiagotan edo. Ordua egokiena ez bazen ere, jende ugari animatu zen

euskararen alde bere kilometrotrotxoa (edo gehiago) egitera.

Baina asteburu honetan ere bada zer kontaturik, larunbatean Euskal Herriko Gazte Asanbladen lehenengo topaketa izango baita. UGAk antolatutako egitarau zabalak osatuko du apirilaren 7a. Ez da ezer faltatuko; trikitilari, txalapartari, zanpantzar, batzarra, bazkaria, azoka, herri probak, bideo-emanaldia eta, nola ez, kontzertua.

Gaueko 21.00etatik aurrera

frontoian arituko dira Odio, Arriskua, Kaotiko, Ki Sap eta Asgarth taldeak. Aurreko astelehenean trikitixa doinuak ireki bazuen Korrika, oraingoan, ziu-raski, zarata gehixeago ere izango da.



KALEZAR

Joseba Pellejero



Erribera emankor hori

Urtaro bakoitzeko idazlan bat egitea egokitzen zaigu, eta hementxe gatoz, berriz ere esanak betetzera. Nahiz neguak ez duen bere lana ondo bete (batzuk gustura eta beste batzuk ez hainbeste utzi ditu), udaberria iritsi zaigu gurera, egutegiak agintzen duena baino lehen.

Naturak bere ziklo berriari ekin dio, kanpoaldea ikusi besterik ez dugu. Egun gutxitan, konturatzera, zuhaitzek hosto berria bota dute eta goiztiar diren fruituarbolak loretan dira, naturaren dizdira da.

Gaurkoan erribera aldera gonbidatuko zaituztet bueltatxo bat ematera, Orbeldiko presan izokinen saltoak ikusiz,



bertako lur gozo eta emankorak nola lantzen dituzten ikustera.

Nahiz eguraldia lagun ez izan, egin beharreko patata guztia egina egongo da dagoeneko. Beste batzuk, berriz, lurra lantzen ariko dira; letxu, baina, eta nola ez, gurean hain preziatua den piper landarea landatzeko.

Gaur egun erribera luze hauek erabiltzen direla, baina, lehengo kontuak bukatuko ziren noski; Ezkerrenekoen patata, babarrun eta arto errenka haiek eta Ilarramenditarrek edukitzen zituzten porru eta letxu sail handi haiek...

Lehen (sinesteak lanak ematen baditu ere), Kalezarko plaza inguruko baserri gehientsuenetan (Xarraenean, Ezkerrenean, Tranpaenean, Errebal Txikin, Sarienean, Portalean, Kastorrenean, Santuxenean, Makatzanean...) behi bat edo ikulu bat zuten, etxeko beharrak asetzeko (ederki aldatu da kaxkoa). Horregatik, erriberan patata, babarrun zein arto sail ederrak lantzen ziren, egin beharra baitzegoen.

ATXEGALDE

Kasualitatea lagun

Amagoia Mujika



Noa! Kultur Elkartea, bazkide kopuruari dagoeneko, aberatsa den arren, urtero izan ohi den batzarra kopuruan ez da hain mamitsua izaten, bai, ordea, edukinean.

Ez, nagusiki, batzarra bera (beti gai berdinak lantzen baitira), ondorengo hamaiketakoa, baizik. Mahaian eserita eta jatekoa aurrean hobeto joan ohi da solasaldia, lasaigo, aberatsago. Alboko mahaikidea ez da, normalean, norberaren hautua izaten, kasualitatearen kapritxoa baizik. Aurreko batzarrean, bada, kasualitatea lagun izan nuen eta hamaiketakokide bikainak izan nituen, izenak kasik soberan daude.

Konturatzera atzera egin eta duela 30-40 urte inguruko Usurbilen inguruan mintzatu zitzaizkidan. Nola aritzen ziren elizako arkupetan pilotan, nola estankotan gasolina saltzen zuten, nola ikusten ziren behiak orain kotxeak bezala...

Nostalgiaz gogoratzen zituzten garaiak, irrifarrea ahoan eta kontatzekoa soberan. Oraindik ahaztu ezinik usurbildar baten abilitadea. Kontatzen zutenez, pilotazale hark ederki atzematen zuen pilotaren norabidea eta, behar izanez gero, arkupetatik salto egin eta errepidetik altxatzen omen zuen norbaitek jaurtitako pilota gaiztoa. Hori bai teknika lantzeko modua.

Eta Atxegalde ere aitatu zuten. Garai bateko plan partzialaren arabera gure auzoko etxeak egun Udaletxeko jardineraino iristen omen ziren. Usurbilaino dugun paseo ederra, beraz, etxez josirik izango zen. Atxegaldeko Auzo Elkartea, ordea, lan ederra egin zuen eta, azkenean, guztion mesederako, proiektu hau gauzatzearagotzi zuten.

Nire mahaikide jakitunek esaten zutenez, Usurbilen beti izan da herria txukun zaintzearen aldeko kontzientzia. Hazi, hazi dadila Usurbil herritarren beharren arabera eta ez konstruktora edo enpresen behar eta nahien neurrian.

SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta

Antonia Gutierrez zahar egoitzako arduradun berria



Hilabete inguru itxita egon ondoren, dagoeneko ireki dute auzoko Gure Elkartea Zahar Egoitza.

Otsailaren 28an Santueneako Gure Elkartea egoitzako tabernaz arduratzen zen pertsonak tabernaren hustiapena egin ondoren lehiaketak iraun duen bitartean itxita egon da aipatu taberna.

Lehiaketara lau pertsona aurkeztu ziren: **Antonia Gutierrez, Maria Carmen Calvo, Rafael Santiago eta Jose Miguel Mendizabal.** Lehiaketan



honako onarriak puntuatu ziren; lan esperientzia, langabezia, famili egoera, euskara ezagutza eta pintxo prestaketa.

Hori dela eta, oinarrien ara-

bera meritua puntuatu eta azterketak egin ondoren **Antonia Gutierrez** izan zen irabazlea. Beraz, hemendik aurrera aipatu emakumeak hartuko du Gure Elkartea egoitzako tabernaren ustiapena.

Duela 15 urte ireki zuten Santuenean Gure Elkartea Egoitza. Urte haue-tan guztietan ardura-dun bakarraren esku

egon da taberna, **Lorenzo Gutierrezen** esku hain zuzen ere. Hemendik aurrera, ordea, aurpegi berriak ikusi ahal izango dira barraz bestaldera.

URDAIAGA

Eider Jauregi

Eguzkiaren aitzakian



Azken asteburuko eguraldi onak kalerako gonbidapena luzatu zigun, neguan gure zoko izaten diren taberna zuloak utzi eta gazte askok izan zuen naturarako joera. Eta, noski, inguru hauetako paraje ederrak aitzakia hartuta, asko eta asko igo ziren gure auzora.

Batzuk lasaitasun bila, beste batzuk lehenengo eguzki printzak aprobetxatzekotan eta beste zenbait, berriz, tabernan bezala egoteko asmoz. Ez ziren faltatu musika, janaria eta edaria.

Norberak gustuko duena egi-ten du, horretan denok bat gatzoz ziurraski. Baina horrek ez

du esan nahi dena libre denik, halako ingurune lasaiera etorri eta zalapartan ibiltzea ez dut begi txarrez ikusten, bakoitzak ondo pasatzeko bere modua baitauka. Onartezi-na da, ordea, halako ingurune ederra zikintzea. Beraz, berriz ere eguzkiak gonbidapena luzatzen badu, Urdaiaga-ko parkea garbi aurkitu nahi izan-go dugu denok. Ba, horretarako

formula erraza da, ez zikindu edo zikindutakoa jaso.



AGINAGA

Iratxe Begiristain



Gurekin ere gogoratu zen Korrika

Ederra aurtengoan Korrikak egin duen hautua. Erriberan barrena, paisaia ederrak bidelagun egin baitute aurtengoan korrikalariek Aginagatik Santuenerako bidea.

Argi falta izango zen, agian, hutsune nabariena. Baina eguraldi ona lagun, giro ederrean abiatu zuen euskararen aldeko sugeak Usurbil alderako ibilaldia.

Hasieran ezarritako ordua baino ordu laurden berandua go iritsi zen Korrika gurera, goizeko 6.30ak baino lehenxeago. Beste urtetan Sariakolan hartu izan dugu aginagarrok lekukoa,

baina aurtan Mapil-eko bihurgunean izan genuen Aginagako lehen kilometroa. Aginagako Jai Batzordearen izenean Oxkar Santamariak eraman zuen korrika 12ren gidaritza. Senideak eta Gestoren txanda izan zen gero eta erritmo ederrean abiatu zen Santuenea aldera, Txokoaldetik barrena.

Izan ere, aurtengoan ibilbide aldaketa izan da Korrika 12k ekarri digun nobedade nagusia. Aurreko

edizioetan N-634 errepidetik iristen ginen Usurbila, aurtan, berriz, ilunpean bada ere, ezkuto bidea hartu eta erriberatik barrena Santueneara iritsi zen euskararen aldeko kolore anitzeko sugea.



ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



Batzarrak

Joan den larunbatean, Udal Batzarrak deituta, herri-bilera egin zen eskola txikietan, eta honako gaiak tratatu ziren.

Batetik bidearen hobekuntza-
ren berri eman zen. Herriarrei azaldu zigutenez, zenbait kurba hobetu dira eta beste batzuk proiektuan daude, hala nola, Etxetxo eta Iruinberrikoak. Bihurgune hauetako ikusgaitasuna edo bisibilitatea hobetzea da lan hauen helburua. Bestalde, Lertxunditik mendira doan bidea ere txukuntzekotan omen dira.

Hirigintza arloari dagokionean, Hipodromoko zelaia aipatu zen; izan ere, orain dela gutxi

berritua dago, eta bertan zeuden ur putzuak ere hustuak daude.

Honez gain, Eusko Jaurlaritzak hipodromo atzealderako dituen asmo eta proiektuak azaldu ziren. Bertan 2500-3000 etxe inguru egiteko egitasmoa du Jaurlaritzak eta Zubietako Herri Batzarrak "honi behar duen erantzuna emateko premia" nabarmendu zuen; izan ere herri izaera kolokan jartzen baitu tamaina honetako plan batek.

Saneamendu arloan, Añarbeko Mankomunitateak bere gain hartuko du Zubietako saneamendua eta honen zati bat lasterrera gauzatuko du.

Zubietako Plan Partzialaren inguruan ere jardun zen joan den larunbateko batzarra; orain dela gutxi onartu da urbanizazio proiektua lehenengo; orain alegazio epean gaude, ondoren erabateko onarpena izango da eta honen ostean ekingo zaio obrak adjudikatzeko faseari.

Batzar kontuez ari garenez, jakin ezazue Zubietako Pilota Elkartek ere hurrengo larunbatean ospatuko duela bere ohizko batzarra, eskola txikietan, goizeko hamar eta erdietan izango da lehenengo deialdia. Elkarteko bazkideei mesedez aipatu batzarrera azaltzeko eskatuko nieke.

“Feliz Aizpurua” II. literatura lehiaketa martxan da

Udala eta Udarregi ikastola-ren ekimenez martxan da haur eta gazte mailako “Feliz Aizpurua” II. literatura lehiaketa. Prosa eta olerkia arloak jorratzeko nahikoa denbora badute herriko gaztetxoek maiatzaren 11n amaitzen baita lanak aurkezteko epea.

8 urtetik 16 urte bitarteko edo-nork izango du lehiaketa hone-tan parte hartzeko aukera, baina adina kontutan hartuta hiru talde egin dira:

A taldea 8 urtetik 10 urte bitartekoek osatuko dute. Poe-sia arloan parte hartu nahi badute neurri libreko bertso edo poesia bakarra aurkeztu beharko dute eta prosan, berriz, gehienez bi orrialdeko lana. Lehenengo saria eskura-tzen duenak 7000 pezeta jaso-ko ditu materialetan, 5000 biga-rranak eta 3500 hirugarrenak.

B taldea osatuko dute 11 urtetik 13urtera bitartekoak. Hauek 2 edo 3 bertso edo olerki bat baino gehiagoz osa daite-

keen gehienez 25 lerroko poe-sia egin beharko dute. Prosan, aldiz, gehienez 4 orrialdeko lana. Sariei dagokionez, 10000 pezeta materialetan jasoko du lehen saria eskuratzen duenak, 75000 bigarrenak eta 5000 hiru-garrenak.

Azkenik, C taldekoak izango dira 14 eta 16 urte bitartekoak. 6 bertso edo olerki bat baino gehiagoz osa daiteen gehienez 50 lerro dituen olerkia egin beharko dute. Prosa jorratu nahi duenak, berriz, gehienez 6 orrialdeko lana aurkeztu behar-ko du. Lehen saria eskuratzen duena 25000 pezeta jasoko ditu dirutan, 13000 bigarrenak eta 8000 hirugarrenak.

Lanak, “Feliz Aizpurua lehiake-ta” izenburuaz Udarregi ikasto-lara bidali beharko dira eta DBHko ikasleek lana disketean (word programan) eta paper formatoan aurkeztu beharko dute maiatzaren 11a baino lehen. Sariak, berriz, ekainaren 28an banatuko dira.



Bat-batean

Enpresetako euskararen erabilera



EMUN kooperatiba herriko enpresetan euskararen erabi-lera aztertzen hasiko da apiri-laren bukaeran. Urbil eta Michelin alde batera utzita beste herriko hiru industrialde-etan dauden enpresetan euskararen egoera zein den zehazten saiatuko dira. Ikerke-ta honen bidez egoeraren oinarritzko argazki bat egin nahi da, egoera horren diag-nosi azkar bat. Enpresetako arduradunekin egon nahi da langileen euskara ezagutza jakiteko, lantegietan euskara erabiltzen den ala ez ikuste-ko... eta bide batez arlo honekiko enpresa hauen jarrera ikusi nahi da. Aldez aurretik, ordea, lan mahai bat osatu da sindikatueta-ko ordezkari, udaleko ordezkari eta beste zenbait kideekin lan honi jarraipen bat egiteko.

Kale Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 15

LABE-GOXO



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia
hemen aurkituko duzu

Udaberriko moda berria zuretzat!

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6,
Tel.: 943 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Olarriondo inguruko lursaila urbanizagarri bihurtu nahi du udalak

Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko (sozialak, errentan jartzekoak etab.) herriaren lur ondasuna haunditzea erabaki zuen udalak 1999ko azaroan. Horretarako Olarriondo eta Puntapax inguruan urbanizatu ezin zen 41.104 m²ko lursaila aukeratu zen. Ekainean onartu zen errege-dekretu batek, ordea, hantaz gora jarri du udalaren asmoa, "hiri-erreserbako lur-zoru ez urbanizagarriak" ez baitira onartzen.

Azken zortzi urte hauetan babes ofizialeko etxebizitzak bultzatu nahi izan ditu udalak merkatuko prezioetan etxerik hartu ezin duen jende askoren beharrei erantzuteko asmoz. Batzutan udalak lurak erosi eta etxebizitza horien eraikuntza sustatu izan du (Galtzara-gaina), beste batzuetan, berriz, ekimen pribatuak izanda babespeko etxeak egitera behartu ditu promotorak.

Eskaintza publiko haundia goa eman nahiak beste era bateko sustapenaren aldeko apustua egitera eraman du udala: merkatuan zuzenean esku hartzera. Hasiera batean Olarriondo eta Puntapax artean dauden urbanizatu ezin diren lurak hiri-ondasun bihurtu eta lur horiek eskuratu ondoren hor babes ofizialeko etxebizitzak egitea zen udalaren asmoa. Lege berri batek, ordea, hiri-erreserbako eremu



ez urbanizagarriak indargabetu ditu eta udalak lur horiek eskuratzeko beste bide bati ekin behar izan dio.

Olarriondo inguruko 37.133 m² lursaila urbanizagarri bihurtzeko asmoa du udalak

Gauzak honela, Olarriondo inguruko lursail hori urbanizagarri bihurtzeko asmoa du udalak. Ondoren lur jabeekin lur horiek erosteko akordio batera iristeko ahalegina egingo du udalak eta akordiorik ez badago zuzenean espropiazioaren bidea hartuko luke. Oraingoz Olarriondo gunean hiri antolamenduko arau subsidiarioen elementuak aldatzeko egin duen aurrerapena

hasieraz onartu zuten eta alegazioak aurkezteko 30 egun izango dira.

Lursail horretan 250 etxebizitza inguru egiteko asmoa du udalak. Gehienak babes ofizialekoak izango dira baina etxebizitza sozialak eta alokairukoak ere jartzeko asmoa badute. Udaleko ordezkarien esanetan etxebizitza hauek zenbat fasetan egingo dituzten zehaztu gabe dago oraindik. *"Artzabalen babes ofizialeko 54 etxebizitza egingo dira. Etxebizitza horiek eskuratu ahal izateko izena eman beharko da eta orduan jakingo dugu herrian dagoen eskaera zein den. Olarriondoko etxebizitzak denak batera edo faseka egin behar diren Artzabalgo babes ofizialeko etxebizitzak banatu ondoren jakingo dugu".*

Josu Aranberri

IGELTSERITZA

URDANTZI, C.B.

Mugikorra: 649435475
649435476

☎ 943 363370- 361439

Lendoia enea
Taberna



Kale Nagusia, 35 Telf: 943 36 25 60

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .

ITURGINTZA

JOSEBA ARANGUREN

Telf: 943 36 43 64

Zaborra birziklatuz ingurugiroari mesede egin nahian

Ingurugiroa pil-pilean dagoen gaia da. Azken urteetan gero eta gehiago dira ingurugiroa zaintzeko hartzen diren neurriak. Birziklapenaren alde egin den apostua da horietako bat. Jendek, etxean sortutako zabor guztia poltsa batean sartu eta zaborkietara eramateko ohitura izan du orain arte. Birziklapenerako ontziak jarri zituztenetik, ordea, gero eta zabor gehiago bereizitzen da. Horren adibide garbia dugu Usurbilen 2000. urtean gaineko bilketak eta birziklaketak emandako datuak.

Gaur egun gure herrian erabiltzen den beira, papera, kartoa, pilak eta ontziak birziklatzeko ez dago arazorik. Urte batzuk pasa dira Usurbil San Markoseko Mankomunitatean sartu zenetik eta herrian sortzen diren hiri-hondakin solidoak bildu eta hauei ahalik eta probetxu gehiena ateratzeari arduratzen dira hauek.

Zaborra energia indarra ateratzeko erabiltzen da

Hondakin solido hauek tratatzeko bi zabortege kontrolatu dauzka San Markoseko Mankomunitateak: Hiri-hondakin solidoak eta asimilagarriak San Markoseko zabortegean botatzen dira. Zabor poltsetan ateratzen dugun guztia leku horretara eramaten dute, mendi antzeko bat egin arte pilatu, gainean lurra bota eta handik hilabete batzuetara biogasa ateratzeko moduan egoten da. Iaz 1.986.540 kilo zabor bildu ziren Usurbilen eta horrekin 500-600 Kwh energia indarra sortu zen. Berreskuragarriak ez diren hondakin solidoak,

berriz, (industri hondakin-solido inerteak) Aizmendiko zabortegean botatzen dira.

Azken urteetan gaikako bilketa eta birziklaketarekin egin dako apostua bere fruituak ematen ari da. Herriko auzo guztietan ikusi ditzazkegu material ezberdinak jasotzeko edukinontziak eta herritarren hauekiko erantzuna geroz eta hobe da.

Papera edukinontzi urdinetan jasotzen da. Etxeetan sortutako prentsa-papera, aldizkariak eta bestelako paperak berreskuratzea da honen helburua. Guzti hau bildu, sailkapen eta paketatze plantara eraman eta azkenik, produktu berriak egiteko paper-fabriketara bideratzen da. 2000. urtean 124.220 kilo paper bildu zen herriko edukinontzietan, biztanleko 23,5 kilo. Edukinontzietako bilketaz gain, ordea, ikaste-etxeetan nahiz administrazio-

an sortutako papera berreskuratzen asmoz, atez-ateko bilketa egiten da. Modu honetara 12.894 kilo berreskuratzen ziren iaz. Bestalde, 7.369 kilo kartoi jaso ziren herriko komertzioetatik.

Ontzien birziklapena bikoiztu egin da

Gipuzkoan gehien birziklatzen den gaia beira da, kontsumitzen den kopuru osoaren %64,5 birziklatzen baita. Edukinontzi berdeetan bota behar dira eta Usurbilen iaz 119.549 kg. jaso ziren, duela bi urte baino 6.000 kg. gehiago. Herrian bildutako guztia beira ontziak egiten dituen enpresara eramaten da. Bertan egon daitezkeen ezpurutasunak deuseztatzen lehenengo sailkapena egin ostean, txikitu eta garbitu egiten da gero beira-ontzi berriak egiteko.

Kontserba-latak, freskagarrien latak, esne edo zuku ontziak eta bestelako plastikozko ontziak edukinontzi horian biltzen dira. Hauek jatorrian bereiztea da bilketa honen hel-

burua. Berreskuratutako materiala Urnietako sailkapen eta banantze-plantara eramaten dira jarraian adierazitako moduan sailkatzeko:

- Plastikozko ontziak: botilak, jogurt poteak, garbigarri-ontziak,

erabilera bakarreko poltsak...



	Zaborra	Beira	Papera	Pilak	Papera ikaste.- admin.	Dendetako kartoia	Ontziak
1995	1.590.020	73.161		365			
1996	1.663.800	79.904		554			
1997	1.809.660	98.597	85.281	580	9.258	12.358	
1998	1.773.680	105.291	97.982	510	9.953	11.550	
1999	1.755.840	113.457	114.912	670	12.266	6.916	14.717
2000	1.986.540	119.549	124.220	853	12.894	7.369	28.157

Plastikoaren izaeraren arabera (PVC, PET, PE...) berriz sailkatzen dira.

- Metalezko ontziak: Latorrizkoak (kontserba latak eta freskagarri latak) eta aluminiozkoak (freskagarri-latak) bereizten dira.

- Tetra brik motako ontziak (esne, zuku, ur eta ardo ontziak).

Sailkapen honek materialak birziklatzen dituzten hainbat lekutara bidaltzea ahalbidetzen du. Izan ere, gero, birziklatzaileek produktua produkzio zikloan sartzen dute berriz ere. Usurbilen duela bi urte jarri zituzten etxeko ontziak birziklatzeko edukinontziak. Orduan 14.717 kg. bildu ziren, baina iaiz bikoiztu egin zen kopuru hori, 28.157 kg. jaso baitziren.

Pilen bilketak ere gorakada nabarmena eman du herrian azken urteetan. 1995. urtean 365 kg. jaso ziren, iaiz, berriz, 853. Horretarako edukinontzi txikiak jarri ziren herriko zenbait tokitan eta pilak hauetara botatzea garrantzitsua da oso. Botoi-pilak, adibidez, dituzten osagai kimikoengatik, ahalmen polutzailearik haundientarikoak duten materialak dira. Horregatik, jasotako pila guz-

tiak Bizkaiko enpresa batetara bidaltzen dira. Deskontaminazio-prozesua gauzatu ondoren merkurio, zink, beruna eta antzeko osagaiak berreskuratzea posible baita.

Herriko birziklatze datuak ikusita, herritarrak gero eta kontzientziatuago daudela esan daiteke. Hala ere, datozen urteotan Gipuzkoan zaborra biltzeko azpiegitura berriak egin beharko direla kontuan hartuta, zaborraren zergak garestituko direla esan zuen duela gutxi Mikel Murua Foru Aldundiko Nekazaritza diputatuak. *"Hauek egiteko diru publikoaz gain, kutsatzen dutenen dirua ere beharko da. Zenbateko igoera izango den e dakigu, baina zaborraren zergak garestitu egingo dira".*



Usurbil ingurugiro-hobekuntzaren bidean

1992an Rio de Janeiron izandako Ingurugiro eta Garapenari buruzko Nazioarteko Biltzarrean 21 Agenda onartu zen luraren hondamena gelditu ahal izateko. Horretarako herri bakoitzak ingurugiroaren arloan ahalegin bat egin behar zuela erabaki zen.

Udalak aginduta Haizea S.L herriko ingurugiroa hobetzeko azterketa bat egiten ari da. Eusko Jaurlaritzaren "Euskal Udalerrietan 21 Toki Agendak Sustatzeko Programa 2000-2003"ren barruan sartzea erabaki zuen udalak eta bere

tokiko agenda landu beharko du jasagarritasuna lortu nahian.

Orain arte herria zer egoeretan dagoen ikusteko, herriaren argazki bat izateko diagnosia egin dute. Arazo larriak zeintzuk diren zehaztu dira, lehentasunak finkatu ere bai, baina hemendik aurrera jendearen eritzia bildu nahi dute. Diagnosia egin ondoren zenbait atal sortu dira eta horiek lantzeko atalez ataleko lan mailak egingo dira. Honek etorkizunerako gida garatzeko aukera emango du, ekin-

tza plan bat osatuko baita ingurugiroa hobetzeko asmoz.



Korrika txikia iritsi zen lehendabizi, Korrika 12a ondoren



Ikamika ugari Patxi Añorgaren inguruan

Patxi Añorga usurbildarrak Donostiako Udaltzaingoan zuen postua berreskuratu du "ETAr laguntza emateagatik" sei urteko espetxe zigorra bete ondoren. Pasa den martxoaren 23an zigorra bete ondoren, Donostiako Udaltzaingoan zuen postua berreskuratzeko zituen 30 egunez baliatuz, espetxeratu baino lehen zuen lanari ekiteko aukera izango du. Trafiko eta aparkamentuen zaintza unitatean onartu dute hain zuzen ere Patxi Añorga. Guzti honek ikamika sortu du Donostiako udalean, PPK gogor gaitzetsi baitu ETak bi atentatu egiteko erabilitako informazioa eman omen zuen udaltzaina lanera itzultzea. Hala ere, legea aintzat hartuta, usurbildarrak lanpostua berreskuratzeko egindako eskaera onartu beste aukerarik ez zuten. Bestalde, "El Mundo" egunkariaren eta Fernando Lázaro kazetariaren aurka helegitea aurkeztuko du Añorgak martxoaren 28an argitaratu informazioan "ageriko faltsukeriak" daudelako.



Udarregiko ikasleek batxiler eleanitza egiteko aukera izango dute

Udarregi ikastolako ikasleek batxiler ikasketa gaiak euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz emateko aukera izango dute datorren ikasturtetik aurrera. Izan ere, Donostiako Zurriola, Herri Ametsa eta Aita Barandiaran Lizeoa ikastolek, eta Udarregi ikastolak taldean landutako hezkuntza proiektuaren bidez Batxilerato eleanitzan parte hartzeko aukera izango dute ikastetxe horretara doazen ikasleek.

Pasa den martxoaren 29an ikastola hauetako zuzendariek prentsaurrekoan aurkeztu zuten hasiera batean batxiler ikasketak euskaraz, gaztela-

niaz eta ingeleraz egitea posible izango da Aita Barandiaran Lizeoan. Hala ere, etorkizunean beste hizkuntza batzuek ere sar daitezke, frantsesa edo alemanera esate baterako.

Batxilerato berezi honetan sartzeko ikasleek aurrebaldintzaren bat bete behar dute: euskaraz eta gaztelaraz ikastoletan ohi den neurria emateaz gain ingelera ere maila on batean menderatu behar dute. Baldintza hori bete-

tzen den ala ez neurtzeko Aita Barandiaran Lizeoan hizkuntza menderatze inguruko frogak egingo dizkiete Batxilerato Eleanitzean sartzea eskatzen duten ikasleei.



Zumarte musika eskolak antolatuta Elgoibar-ko Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten Udarregi ikastolako aretoan pasa den martxoaren 29an. "Hari taldea", "Akordeoi taldea" eta "Dixeland band" taldeen musika entzuteko aukera izan zuten bertara gerturatu zuten guztiek. Bestalde, martxoaren 29an Donostiako Peña Florida institutuan izan ziren Zumarteko abesbatzakoak Catalina de Erauso musika hamabostaldiaren



Apirilaren 10ean EH-ek deitutako greba orokorra dela eta, azken bi astetan Usurbilgo ezker abertzaleak herriko hainbat sektore eta kultur eragileen atxikimenduak biltzen aritu da. Fase honi amaiera eman nahian, martxoaren 31ean agerpen publiko bat egin zuten herriko pilotalekuan atxikitu diren hainbat herritarrekin batera. Agustin Lizasok idatzi bat irakurri zuen. Ekitaldi honetan 30 lagun inguru bildu ziren eta han ziren, besteak beste, Alejandro Tapia pintorea Joxe Miguel Peñagakarikano aizkolaria.

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67



Behoko kalea. 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK

Faxistak (ETA), alde hemendik

Aurreko batean, eza-gun batek zera esaten zidan: Euskalerrian bizi dugun autogobernu maila, euskal langilegoaren bizitza maila eta abertzaletasunaren irautea ere, ETArri esker genuela. Sutan jarri ninduen.

ETA ez da demokrata eta ez du demokrazian sinisten. ETArren ideologia, ideologi totalitariora da. Prozesu partehartzailerak oztopo dira bere helburuen lorpena atzera ditzazketelako, benetako prozesu partehartzailerak kontrolaezinak direlako. Horren aurrean, bere alternatiba: indarkeria erabili, disidentzia isildu, arerioa exterminatu.

ETA autodeterminazio esku-bidearen aurka dago, ez dio Euskalerriri hitza eman nahi herria ez dagoelako berarekin.

ETA ez da abertzalea. Bere jarduerak abertzaleon elkarlana oztopatzeaz gain, ez abertzaleei aitzakiak eskeintzen dizkie euskararen aurka, euskal autogobernu eta ekonomia-aren aurka, euskal hezkuntza sistemaren aurka aritzeko. ETArren abertzaletasuna gezurra da; bere proiektu totalitariora kamuflatzeko gezurra.

ETA ez da progresista. Progresista izatea pertsona guztien, komunitate osoaren onginahia bilatzea da, eta horri lehentasuna ematea. ETak,

gure komunitateko kideak hiltzen ditu, samina zabaltzen du gure artean, arerio politikoak exterminatzen ditu. Ez digu esaten nolako ekonomia eredu nahi duen herri honentzat, aldiz, enpresariak eta merkatariak estorsionatzen ditu. Ez digu esaten nolako ongizate sistema nahi duen. Ez digu eskeintzen elkarbizitzarako erreferente etiko bat. Lurraldetasunaz eta subiranotasunaz mintzo zaigu, baina ez pertsonetaz.

Ez demokratik, ez abertzaleak, ez progresistak; kaputxapean izkututzen diren koldar hutsak!

Luis Mari Ormaetxea

Aingerutxoak eta munstroak

Senideak elkarteak desagite-
ra doa; ez du deialdi gehi-
gorik egingo; ez du salake-
ta gehiago plazaratuko; ez eta
bere senitartekoen eskubideak
erreibindikatu; gaurko hau
azken enkatelada izan da...

Horixe da, hain juxtu, zabaldu
nahi genukeen mezua. Irrikitan
gaude gure elkarlearen eginbe-
harra desagertu egin dela iragar-
tzeko. Ostiraletan hona etorri edo
hara joateko eskaerekin amaitze-
ko.

Baina zoritxarrez, betiko leloare-
kin jarraitu beharrean gaude.
Nahikoa da hilabete honetako
balantze tragikoa ikustea:

Martxo honetan hiru pertsona
hil dira; ehun ta hamabost atxilo-
keta izan dira; atxilotutako batzuk
basatiki torturatuak izan dira; Fran-
tziako eta Espainiako presonde-
giak beteak dira; lehen aldi-
koz, adin txikiko hiru mutil atxilo-
tuak eta Euskal Herritik kanpo
espetxeratuak izan dira; gure
familiarren egoera bere horretan;
baldintzapeko askatasunean
behar luketeen ehun preso espe-
txean oraindik; gaixorik dauden
beste sei iri ebakuntza egin die-
zaieten Euskal Herriratzea ukatu
egin zaie.

Horretaz gainera, lehen ere egin
izan dituzten zenbait saiakeren
haritik, azken egunotan benetako
satanizazio-kanpainak ezagutzen
ari gara. Hor ditugu aldameneko
herrian pailazo batek jasaten ari
dena eta gertuago oraindik,
hementxe bertan, Patxi gure
elkarteko kideak pairatzen duena.
Ezker-eskubi entzuten ari gara
direnak eta, batez ere, ez dire-
nak. Nonbait munstro bat genuen
gure artean, okerrenetakoa, eta
guk ezer jakin ez. Eta hau guztia,
a zer kasualitatea, hauteskunde
atarian.

Arazoa txintxo eta gaiztoen
artekoa edo zentzudunen eta ero
batzuen artekoa,
edo nahiago badu-
zue, kriminal-terroris-
ta-bihotzgabeen
eta demokrata-zin-
tzo-eskuzabalen
artekoa dela sinista-
razten saiatzen dire-
nak, ez dute inolako
irtenbiderik ekar-
tzen, gatazkaren
areago- tzea ez
bada. Zentzu mini-
moa duen edonork
badaki bide horre-
tatik ez dagoela
konponbiderik.

Azterketa sakon bat, diagnosti-
ko erreala eskatzen dugu, batez
ere politikoei. Orain arteko propo-
samenak berrikusi eta gatazka
gainditzeko urrats zehatzak plan-
teatu behar dira. Gure eta gure
senitartekoen kriminalizazioak ez
du pakerik ezta justiziarik ekarriko.
Konbentzitura gaude irtenbidea
egon badagoela eta norabide
horretan urrats zehatzak eman
behar ditugu konponbide demo-
kratiko horren arkitektura eraikitze-
ko. Gu guztiok konpromiso horri
aurre egin behar diogu, guztien-
tzat tamalgarria den egoera hau
behin betiko konpondu dadin.

Usurbilgo Senideak





Ping-pong

Lasarte-Oria Kirol elkartean dabilzan kadete mailako Mikel Otaegi eta jubenil mailako Jon Yarza usurbildar ping pong jokalariai Kirolgi Fundazioak antolatzen dituen teknifikazio egitasmo-etarako aukeratu dituzte. Gipuzkoako jokalaria onenekin batera Joaquin Pla entrenatzaile katalandarraren esanetara ariko dira asteen behin. Kirol arloan hobetzeko aukera izateaz gain, abantaila ekonomiko txiki batzuk ere izango dituzte.



Herriko haurren txapelketako finalak

Datorren apirilaren 8an goizeko 11.00etatik aurrera izango dira herriko pelotari gaztetxoentzako txapelketako azken partidak.

7 urte

Julen Berradre - Jon Galbete

8 urte

Julen Uli - Xabier Peñagarikano

9 urte

Jokin Irastorza - Eñaut Pagola

11 urte

Eñaut Esnaola - Xabier Sancho

12 urte

Iñigo Irastorza - Iker Zinkunegi

13 urte

Joseba Bengoetxea - Endika Berradre



Usurbil F.T.k zuzendaritza berria izango du

Pasa den martxoaren 24an Usurbil Futbol taldearen ezohiko batzarra egin zen. Bertan, azken urteetan zuzendaritza batzordean egon den taldeak datorren denboraldian ez duela jarraituko jakin arazi zuen. Hala ere herritarrez osatutako beste talde datorren denboraldian Usurbil F.T.ren gidaritza hartzeko prest agertu da.

Herritarrengan futbolarekiko interesa piztea da talde honen helburu nagusia. Azken urteetan maila ezberdinetan lau

talde izan ondoren, denboraldi honetan errejional mailako nesken taldearen partidak bakarrik ikusi ahal izan dira Hara-ne futbol zelaian. Beraz, ia hutsetik hasi eta herriko gazteei futboleantzako aukera eman nahi die zuzendaritzaren gidaritza hartuko duen taldeak.

Joxe Mari Borda izango lehendakaria, lehendakariordea, baina honek atal ezberdinetan lan egiteko lantalde zabal bat izango du atzean. Amagoia Mujika, Markel Olaiola, Imanol Bereziartua, Jose Luis Muñoz, Paulino Domin-

iguez, Lolo Sanchez, Gorka Aierbe eta Josu Aranberrik osatuko dute lantalde hori.

Lanean hasi aurretik, ordea, herriko gazteak futboleantzako prest dauden ala ez jakin nahi dute. Horretarako, apirilaren 28an bilera bat egingo da arratsaldeko 18.00etan Udarregi zaharreko aretoan. Kadete mailako 14-16 urteko gazteak, jubenil mailako 16-18 urteko gazteak eta errejional mailako taldea osatuko luketen 18 urtetik gorakoak gonbidatuta daude bilera honetara maila hauetan talderik atera daitekeen edo ez ikusteko.

GALARRA GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
 * ZABOR BILKETA
 * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Sahara: laguntza behar beharrezkoa duen lurrik gabeko herrialdea

Julian Bengoetxea, bere arreba eta honen senarra Saharan egon dira lau egunez. Bilbon hegazkina hartu Tinduferra iritsi eta Land Roverre-tan sahararren kanpamendura eramane zituzten. Han beraien bizimodua gertutik jarraitu ahal izan dute, beraiek ere hango bizitza egin baitute: dendetan lo egin, bertan dagoen janaria jan, lau egunak dutxatu gabe egon... *"han ez dago besterik"*.

Ez da izan sahararrekin izan duten lehen hartu-eman. Iazko udaran bertako bi ume eduki zituzten, neska-mutilak hain zuzen ere, eta hauek bisitatzeko hemendik hara bidaiak antolatzen direnez aukera hori ez galtzea erabaki zuten. Lau egun egin dituzte han: bi egun mutilaren familiarekin eta beste bi neska-arenarekin.

Joan aurretik aurkituko zutenaren inguruko informazioa bazuten, bazekiten errefuxiatuta kanpamenduan bizi zirela, baina Julian Bengoetxearen esanetan hara joan direnean ikusi dute benetan zer den hura. *"Desertu batean bizi dira, lehorra da dena eta ezer ere ez dago han, zuhaixka batzuk akaso. Lau kanpamendu daude, zein baino zein haundiagoak, kanpamendu bakoitzean 5000 lagunetik gora bizi baitira. Kanpamendu bakoitza auzo baten antzekoa da, baina etxeak egon beharrean lonazko dendak daude. Hemen bizi dira beraiek, hemen egiten dute bizitza gehiena, bai soziala eta bai familiakoa"*. Hala ere denda horiez gain, sukalde modura, gela modura edo komuna baitz bezala erabiltzen dituzten lurrarekin edo bustinarekin egindako eraikin txiki batzuk omen dituzte.

Sahararrek kanpoko laguntzaren behar handia dutela entzun izan dugu askotan eta hori egia omen da. *"Bizi ahal izateko oinarriezkoena badute, baina miseian bizi dira. Guk hemen nahi dugun ur guztia daukagu, baina haiek ez. Eguna oso ur gutxiarekin pasatzen dute, itxurazko komunik ez dute, estolderiarik ere ez... Hala ere desertuan egoteko*



nahikoa ondo antolatuta daude. Jana banatzeko, ura ekartzeko, osasun zerbitzua emateko, ikasketetako... ahal duten neurrian antolatzen dira, baina funtzionamendu ona dute".

Han dena aprobetxatzen da, soberakinik ez dago


Bizirik irauteko beharrezkoa dena beste lanik ez omen dute egiten. Batzuk ahuntzak dituzte, esnea lortzeko gameluak eta ardiak besteak... baina gainerantzean lan jakin bat ez badute behintzat ez dute beste ezer egiten. *"Han dena aprobetxatzen da, soberan ez dute ezer izaten. Papera eta kartoia ere ahuntzek jaten dute eta! Nik ez dakit beraiek nola jango duten gu ez gaudenean, baina gu han egon garen bitartean zuten dena eman ziguten. Denbora guztian gainean izan ditugu, bai familia batekoak eta bai bestekoak. Dena eman nahi ziguten eta opari mugari egiten zizkiguten. Hori bai, gonbidatuak joaten direnean beraientzat sakratua da antxume bat hiltzea eta guk bi jan genituen; ez zuten haragi askorik baina..."*.

Julianek esan digunez oso tradizionalistak dira. Aita denda barrura sartzen denean barruko guztiak ixildu egiten dira. *"Mutilaren aita oso irekia zen, kanpoan asko ibilitakoa. Harekin edozein sartzen zen denda barrura eta emakumeak ere batera ibiltzen ziren. Bestearen denda emakumeak kanpora irtetzen ziren, guri jana atera eta berak aparte*

jaten zuen". Hala ere oso alaiak direla konturatu dira. Emakumeei dantza egitea eta abestea gustatzen omen zaie eta inguruko emakume eta gazteak etorri ziren festa bat ere antolatu omen zuten. Aitak, ordea, ez dira festa horretan egoten. *"Aitaren aurrean horrelakorik ezin dutenez egin hauek alde egingen dute"*.

Opari asko jaso dituzte, baina eraman ere bai. Udaleko langileei behintza eskerrak eman nahi dizkie Julian Bengoetxeak, beraiek jarritako diruaz bi eguzki plaka eramane baitzituzten haruntz. *"Han ez dago argindarririk. Dendan argia eduki ahal izateko kanping-gasak, fluorescenteak edo lanparak erabiltzen dituzte. Horretarako bateria beharrezkoa dute eta egunez ibiltzen duten Land-Rover zaharrarena ibiltzen dute. Hala ere, gero eta eguzki plaka gehiago daude. Egunez egiten duen eguzkiaren argiarekin bateriak kargatzen dituzte, gero gauean argia eduki ahal izateko"*.





Begoña Elxpe

Bizkarre

Ez gara kanpora joango, etxean geratuko gara. Lehen gizonak egun horietan ez zuen lanik egiten eta Aste Santuan ateratzen ginen, baina orain udaran ateratzen gerenez, Aste Santua hemen pasako dugu. Hemen geratuko gara, herria zaintzen.



Izaskun Huizi

Atxegalde

Aurten bertan geratuko gara, lasai-lasai hemendik. Bestela, urte batzuetan atera izan gara eta beste batzuetan ez, plana eta gogoaren arabera, baina normalean gertu, zeren bost egunerako urrutira joatea ere...



Eva Ugartemendia

Kalezar

Hemen geratzeko asmoa daukat. Normalean ez dugu ohiturarik ateratzeko. Gizonak lana egiten du eta hemen geratzen gara. Gustoko dut gaieta hemen gelditzea oso lasai egoten da herria eta oso lasai egoten naiz Aste Santuan hemen. Ez dit inbidiarik ematen kanpora ateratzeak.



Jose Raposo

Puntapax

Aste Santuan ez dut ateratzeko asmorik, egun horietan ere lanera joan behar dut eta. Bestela ere, azkenaldi honetan normalean ez gara ateratzen, umeak dauzkagunez herrian gelditzen gara.



Maitane Zinkunegi

Olarriondo

Kanpora joateko asmoa dut, Benidorm aldera. Batzuetan toki batera edo bestera joaten naiz baina beste batzuetan hemen gelditzen naiz. Bost egunerako noa, jai diren egun horiek ahal diren neurrian aprobetxatzera.



Anjel Uli

Kaleberri

Lanera joan behar dut eta hemen geratuko gara. Beste urteetan ere hemen gelditzen gara beti, ez daukagu oporretara joateko ohiturarik. Lanera joan beharrak kanpora irtetzea eragozten digu.



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

3er diyo?



Jon Aizpurua



❑ **Usurbilgo Gazte asanbladako kidea**

❑ **Gazte Asanbladen 1go Topaketako antolatzailea**

Lo zegoen arra esnatu da

Duela urtebete baino zertxobait gehiago 30 bat gazte asanblada eta gaztetxe bildu ziren lehenengo hartu-emanak edukiz. Ordutik aurrera beste bilera batzuk egin ziren eta hauen eraginez Zalbidin asteburu bateko topaketa bat antolatzea erabaki zen. Bertan elkarren arteko lotura bat sortzea eta arazo amankomunei aurre egiteko irtenbideak topatzea izan zen helburu; ondorioz "GAZTE ESNA HADI" kanpaina sortu zen. Bi helburu nagusi zituen kanpaina honek; bata, pasibotasunari aurre egin eta, bestea, gazte asanblada eta gaztetxeen arteko gida sortzea.

Baina, denborak aurrera egin ahala hasierako asmo haiek hozten joan ziren duela gutxi arte: bizpahiru herrien arteko hartu-emaña izan behar zuen ekintza bat, bat-batean Euskal Herriko hainbat txokoetara zabaltzeko. Hasiera batean, Usurbil, Orio... elkar ezagutzeko antolatu nahi zen festa genuen helburu; baina pilota, nahi gabe, pixkanaka-pixkanaka haunditzen eta zabaltzen joan da inongo kontrolik gabe. Ahoz aho zabaltzen joan den berri bat izan da, non uste baino gazte gehiago zegoen interesatua. Gainera, azken ekintza honetako antolatzaileek ez genuen arestian aipatutako topaketaren inongo berririk. Nafarroan ere bada beste mugimendu berri bat Iruñea eta Iruñerriko gazte asanbladen artean, gainera, martxoaren 10ean egin berri dute beraien festa.

Onartu behar da oso pozgarria izan dela bakarrik ez gaudela deskubritzea. Izan ere, horren lekuko baitugu gonbidatu gabeko hainbat

gazte asanbladen telefono deiak.

Gu Usurbil inguruan mugitzen hasi baino lehenago, beste eskualdeetan ere hainbat gazte asanbladen artean guk ezagutzen ez genituen harremanak izan zituzten. Adibidez, Iruñea eta inguruko herri eta auzotako hainbat gazteren elkarlana. Baina, gehien harritu gintuen kasua, noski, Gipuzkoa mailan gauzatzen ari ziren gazte asanbladen arteko lan eta informazio sarea izan zen.

Ikusten duzuen bezala, gure proiektua istripu gisa jaio zela esan genezake, baina oraingoan lo zegoen arra esnatu dela dirudi.

Apirilaren 7an Usurbilen burutuko den Gazte Asanbladen 1go topaketa honek, loturak eta elkarlaguntza gauzatzea du helburu. Gure gaztetxe eta gazte asanbladen arteko sare informatibo bat sortzea gure hainbat arazoei elkarlaguntza bat sustraituz. Gure Euskal Herri honetan ez gaudela bakarrik, baizik eta badirela beste hamaika gazte lanean ideien eta herriaren alde. Ondorioz, gaur egun Gipuzkoa mailan dagoen gida zabaltzea eta gorpuztea du helburu, gure hainbat beharrei aurre egiteko tresna izan dadin. Gida hau Euskal Herri mailakoa izan daitekeela ziur gaude denon ekarpenekin.

Baina, aurrerantzean zer? Apirilaren 7a erabaki da festa antolatzeko egun apropos bezala. Egundik horren ondoren balorazioak aurkezteko (festaren kalitatea, lana, jendearen erantzuna, eztabaiden emaitzak...) bildu beharko gara eta behar bezalako ondorioak atera, festa honek bere fruituak nozitu ditzan.



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

Kalkos kopisteria

- ❏ Fotokopiak
- ❏ Fotokopiak koloretan
- ❏ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ❏ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ❏ Planoen kopiak (AO arte)
- ❏ Ordenadoreko lanak
- ❏ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ❏ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

XABIER EDARITEGIA

**Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak**

- ✕ Idiazabal gazta
- ✕ Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

Lehiaketa



Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean
Tragoxka tabernan bi
personentzat afaria
zozketatuko dugu

Aurreko argazkia



Erantzuna



Irabazlea

Mari Cruz
Beristain Insausti

Saria

Bordatxo tabernan
bi lagunentzako
afaria

LITERATURAREN TXOKOA



"Egun denak ez dira berdin"
Xabier Etxeberria
Bilduma: Literatura 209 / Orriak: 232

Detektibe-istorio hankazgoratu bat aurkituko du irakurleak nobela honetan, Miren izeneko tabernari baten maitasun eta bakardadezko kontakizun hunkigarria ere bai, gaurko gazteriaren erretratu zorrotz bat, epikatik eta topikoetatik ihes egiten duena, eta askoz gauza gehiago. Indartsu dator Etxeberria letren plazara, errejistro eta estilo ugari menderatuz: intriga, pertsonaien psikologia, amodio-kontuak, umore batzuetan beltz eta besteetan ironikoa... Hori dena, erritmo bizi eta idazkera arin batekin: esaldi laburrak, kaleko hiztegia, espresibitate handia... Hitz batean esanda, ezagutu beharreko idazlea.



**Zenbat liburu
argitaratu ditu
Xabier Etxeberriak?**

Asmatzaileen artean liburu
honen bi ale zozketatuko
ditugu. Erantzunak Noaual
Kultur Elkartera bidali edo
bertako postontzian utzi
ditzazkezu.

**JOSUE
ARANZAZISTROKI**
**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea. 6 Telf: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05



Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

APIRILAK 7 larunbata

● Euskal Herriko Gazte Asanbladen I. topaketa.

10.00etan topaketari **ongi etorria** trikitilari, txalapartari eta zarpantzarrekin.

10.30etan Euskal Herriko gazte-
txe eta Gazte Asanbladen
arteko **batzarra**.

13.30etan bazkaria. Bazkaria-
ren ondoren **Pepi eta Gabiren**
kontzertu akustikoa.

17.00etan **azoka alternatiboa-
ren irekiera**; gazte asanbladen
materiala, maketak, CD-ak,
bigarren eskuko arropak,
pegatinak...

17.01ean **taldeen arteko herri**
probak.

17.02an gaztetxeen inguruko
bideo emanaldiak.

17.30etan **trikiti-bertso-poteo**
herrikoa.

21.00etan **kontzertua**: Odio,
Arriskua, Kaotiko, Ki Sap
(Valentziako Ska talde bat)
eta Asgarth. Sarrera: 500 pza.

APIRILAK 9 astelehena

● Euskal prozesu demokratiko- aren aldeko konzentrazioa.

Bordatxo aurreko errotondan
arratsaldeko 20.00etan.

APIRILAK 22 igandea

● XVIII. Ibilaldia Andatza K.K.E.- k antolatuta. 8 ordu inguruko iraupena. Ibilaldia Usurbilgo frontoitik irtengo da goizeko 8.00etan.

APIRILAK 23 astelehena

● Euskal prozesu demokratikoa- ren aldeko konzentrazioa.

Bordatxo aurreko errotondan
arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK

✍ **Neska bat behar da etxekolanak
egiteko eta haurrak zaintzeko.**
Interesatuak deitu 943 37 29 38
telefonora (gauetz).

✍ **Neska eskaintzen da orduka
etxeko lanak egiteko.** Astebete
goizez eta hurrengo arrat-
saldez. Telf. 679258721.

✍ **Mahaspildegia elkartean bazkide
postua** salduko nuke. Telf. 943
365231.

✍ **Chow chow arrazako txakurrak
salgai.** Pedigriarekin. Harremane-
tarako deitu 943 362072 telefono-
ra.

✍ Banaketarako furgoneta isoter-
mo bat aukeran. Lanerako auke-
rarekin ere saltzen da. Interesa-
tuak deitu 606060322 telefonora.

Euskal Herriko sokatira txapelketa goma gainean

FINALA

TALDEAK:

- Abadino (Bizkaia)
- Altamira Gaztea (Bizkaia)
- Beti-Gazte (Nafarroa)
- Leioa (Bizkaia)
- Torrekolanda (Bizkaia)
- Areso (Nafarroa)

Maila: 560 kilotan

**Eguna: Apirilak 7,
larunbata**

Lekua: Oiardo kiroldegia

**Ordua: Arratsaldeko
17.00etan**

Antolatzaileak:

**Usurbilgo udal Kirol
Patronatua**

Usurbilgo sokatira taldea

U.G.A.ren areto futbol II. txapelketa

- Izena emateko orriak: Aitza-
gan, Irratin, Sagastin, Zendoia-
enean eta kiroldegian.

- Bi multzo: 14 urtez gorakoak
(5000 pezeta taldeko). 14
urtez beherakoak (2000 peze-
ta taldeko).

- Talde bakoitzean 6-10 jokalaria.

- Partiduak frontoian.

- Izena emateko epea: apirila-
ren 11a.

**Oraindik ere izena
eman dezakezue!**

BAI EUSKAL HERRIARI-TIK EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUNAREN AITORMENERA

Iaz hasitako "Bai Euskal Herriari" ekimenak izan du erantzunik. Euskal Herriak berezko duen Naziotasun aitormenaren aldarrika-
penerako, eta ondorioz euskal hiritar orok, Europako nahiz mun-
duko beste edozein naziotako edozeini bezala, gure nortasun
eta naziotasun agiria sortzeko usurbilen bildutako 2200 sinadura
baino gehiagori Euskal herri guztian bildutakoekin batera
(125.000 sinaduratik gora) UDALBILTZAri luzatutako eskabideak
izan du erantzunik ja. Hori dela eta, Usurbilgo udalak beronen
zabaltzea gauzatzea eztabaidatu eta hartu beharreko erabakia
onartzeko datorren **apirilaren 9an arratsaldeko 19.30etan**
pleno berezia ospatuko du. Hau dela eta, sinatzaile nahiz
herriar orori luzatzen diogu bertaratzeko gonbitea.



txeko berri

Batzar Orokorrak iazko balantzea eta aurtengo egitasmoak onartu ditu

Noa! Kultur Elkartek urteroko Batzar Orokorra egin zuen pasa den martxoaren 31an. Bazkideei urteko gorabeheren berri eman eta 2.001 urterako plangintza aurkeztu zitzaizen. Azken urteetako maldan beherako bideari jarraituz, ez zen bazkide ugari bildu udaleko pleno artean. Iaz kezkagarritzat jo bagenuen aurten zer esanik ez. 513 bazkideetatik hamabost lagun besterik ez baitziren agertu.

Agertu edo ez agertu, bertan ziren bazkideek iazko urtearen balantzea ahobatez onartu zuten. Ondoren 2.001 urteko egitasmoa aurkeztu zen eta hemen ere ez zen arazorik izan.

Aldizkariari dagokionez, hamabostero etxean jasotzen duzuen aldizkaria gehiago egonkortzea da erronka nagusia. Iazko bideari jarraituz, 23 ale kaleratuko ditugu. Salbuespenak salbuespen, aurten aldizkariaren orrialde



kopurua 24 orrialdekoa izango da, aldizkaria edukinez egoki hornitua egoteko. Publizitatea jartzen dutenen jarrera ona ikusita aurten ere bide horretatik jarraitzeko asmoa dago.

Urte amaierareko liburu berri bat argitaratuko da

Kultur Elkartearen jaurduerei dagokionez, hiru izango dira aurtengo egitasmo nagusiak:

lehenengoa, etxeko bakidetzarekin jarraitzea; bigarrena, Usurbilgo 180 base-riren azterketa etnografikoa eta soziologikoa jasoko duen liburua urte amaierareko argitaratzea; eta, azkenik, Udal Argazkien Artxiboaren antolaketa eta digitalizazioa burutzea.

Aurten, ordea, ez da beka deialdiarik kaleratuko. Izan ere, Elkartek bi egitasmo baititu esku artean; lehen aipatutako liburua batetik, eta Usurbilgo Senideak-ek, iazko beka talde honek irabazi baitzuen, lantzen ari den herriko memoria errepresiboa, bestetik.

Bestalde, iazko urtearen ildotik, herriko tabernariekin elkarlanean udaberriko eta udazkeneko ekitaldiekin jarraitzeko asmoa dago, eta iaz hain arrakastatsua izan zen "Plis plas, txalo ta jolas" egitarauak ere emango du zeresanik.

Azkenik, 2001. urteko aurrekontuak ere onartu ziren Batzar Orokorrean. Hori dela eta, Noa! Kultur Elkartek 18 milioiko aurrekontuari egin beharko dio aurre 2.001. urtean.

Herriko Argazki Artxiboa osatzea helburu duen egitasmoa

Noa! Kultur Elkartek 2001 urterako duen erronka nagusietariko bat Udal Argazkien Antolaketara eta digitalizazioa egitea izango da.

Noa!k Eusko Ikaskuntzak eta Usurbilgo Udalak kaleratu zuten beka-deialdira aurkeztua erabaki zuen, benetan proiektu intresgarria iruditu baitzizaigun herriarentzat. Beka irabazi egin du eta orain buru-belarri sartuko da egitasmoan.

Beka urtebetekoa izango bada ere, aurrera begira Herriko Argazki Artxiboa osatzen jarraituko du Elkartek. Era honetara, egun herriak duen gabezi eta ondare hori berreskuratzea eta herritar guztien zerbitzura jartzea da helburu, edozeinek nahi dituen kontsulta guztiak egin ahal izateko.

Hau guztia egiteko, Elkartek lantalde bat bideratu du eta pertsona bat liberatuko du egun osoko lanorduekin.

Osasunean adituak Gida

AHOLKUAK



Beroari aurre egin

Azken aldian, eguraldi ona izaki, jende askok hartu du egunpasa irteteko joera. Ideia aparta benetan. Beste askok, ordea, Aste Santuko oporrei itxarongo diete, bazter ezkutuak ezagutzera joateko. Batzuek zein bes-teek maleta eta poltsak betetzen emango dizue denbora, baina hona hemen zenbait aholku UDA-BERRI eder honetan ahalik eta hoberen egoteko.

Eguzkiak dagoeneko indarrez jotzen du eta dagoeneko "kolore gosea" dela eta, eguzkia jan nahian egoten gara, honek erretzen ez duelakoan. Ba... kontuz ibili! Gure gorputza eguzkiari erakutsi genion azken egunetik hilabete dexente pasa baitira eta azalaren zelulak ere aldatzen eta berritzen joan baitira. Hauek oraindik eguzkia apenas ezagutzen dute, beraz, ohitzeko denbora eman beharko diegu. Kontutan izan eguzkitarako krema babesleak eman behar direla; hasiera batean babes maila altukoak eta, gero, emeki-emeki jeisten joan, azalaren egoeraren arabera. Haurrekin arreta berezia izan ezazue, izan ere, beraien azala gurea baino sentikorragoa baita eta babes maila altuagoa behar baitute.

Burua ere zaintzea komenigarria da izualdiaren bat izan aurretik. Eguzkitan denbora gehiegi egotek kalte egiten digu eta gorputzean bero gehiegi izateak lipotimiaren bat jasatera eraman gaitzake. Beraz, itzalak aprobetxatu edota burua babestu (gaur egun txapelak eta bixerak erabiltzea modan dago eta...). Bestalde, eguzkitako betaurrekoak ere eramatea ez dago soberan, begiak ere zaindu behar baitira.

Bero asko egiten duen lekuren batetara joanez gero, ur botila motxilan eraman. Gorputza indarberritu asmoz likidoak hartzea benetan garrantzitsua baita, batez ere haur eta adin nagusiko jendearen kasuan.

Azkenik, Aste Santutan kanpora joateko aukera duenari urarekin argi ibiltzea gomendatuko nioke. Ura edangarria dela ziurtatu, temperatura altuek eta uraren kalitate txarrak beherakoak ekar baitituzke.

Beraz, gomendio hauek ballagarriak izango direlakoan, ongi pasa eta zaindu!

Saioa Fernandez. Erizaina

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

Izaskun Irulegi Eguibar

Dietista Diplomatu

✓ Telf: 943 36 48 83/ dietizas@terra.es

✓ Geltoki, 8-1B - 20160 Lasarte-oria

PODOLOGOAK

Lasarte-Orian Erizain bulegoa

✕ Erizain bulegoa

✕ Podologa

✕ Etxez etxeko zerbitzua

✓ Kale Nagusia, 53 behea - Telf: 943 37 66 27

OPTIKAK

(osakidetzan sartuta) **Usurbil Optika**

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

✓ Zubiaurrenea, 10 - Telf eta faxa: 943 37 02 69

✓ Ordutegia: 10:00-13:30/ 17:00-20:00 Larunbatean goizez irekita eta ldez aurretik ordua eskatuta beste ordutegi batean etor zaitezke.

MASAJEAK

KIMA masaje lekua

✕ Kirol masajea

✕ Masaje terapeutikoa

✓ Kale Nagusia, 44 behea - Telf: 943 36 61 97
Lasarte-Oria

ODONTOLOGIA

Usurbilgo Hartz Klinika

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

✓ Kale Nagusia, 2 1.C4 - Telf: 943 37 08 78

FARMAZIAK

Isidoro Iturralde

✓ Bordaberri, 1 - Telf: 943 36 33 95

TELEFONO INTERESGARRIAK

Anbulategia: 943 36 20 13

D.Y.A.: 943 46 46 22

Gurutze Gorria: 943 27 22 22